



ARRISKU PENALAK ETA EROSKERIA SAHIESTEKO POLITIKA

ADMINISTRAZIO-ORGANOAK ONARTUA:

2023ko abendua

ALDAKETAK KONTROLATZEA

BERTSIOA - ATALAK	IRUZKINAK - DATA
V.0.- hasierako dokumentua	Indarrean 2018-09-19tik
V.1.- aldaketa txikiak formatuan	2020-10-22ko OCP-ak onartuta
V.2.- edukia (orokorra) egokitzea eta eguneratzea	OB-ak prestatua, gainbegiratua eta onartua 2021-11-26ko aktan eta 03/2022 administrazio-organoan
V.3.- Helburuak eguneratzea – IBEari buruzko puntua, otsailaren 20ko 2/2023 Legearen arabera.	Komunikazio Bulegoak prestatu, gainbegiratu eta onartu zuen 2023ko azaroaren 29ko aktan, eta Administrazio Organoak 12/2023an

AURKIBIDEA

1.	XEDEA ETA HELBURUA	4
2.	IRISMENA	4
3.	HELBURUAK	5
4.	INDARREAN SARTZEA, INDARRALDIA, KOMUNIKAZIOA ETA BERRIKUSPENA.....	6

1. XEDEA ETA HELBURUA

ZAINTZEN S.A. (aurrerantzean, ZAINTZEN) gobernu-organoak bere gain hartzen du erakundeak indarrean dagoen legeria, barne-araudia eta printzipio eta balio etikoak betetzeko konpromisoa, eta hura bultzatzen du; horretarako, Compliance Penalak eta Eroskeria Kudeatzeko Sistema ZAINTZENla ezartzeko, garatzeko, mantentzeko eta etengabe hobetzeko behar diren baliabideak emango ditu. Sistema horren helburua, oro har, edozer arrisku penal prebenitzea, antzematea eta hari erantzutea izango da, eta, zehazki, negozio, harreman eta prozesu korporatibo mota ezberdinekin lotutako eroskeriaren arloko arrisku penalak.

Politika honek bat egiten du prebentziozko printzipio zuzendariekin eta ZAINTZENren Kode Etikoan jasotako derrigorrezko jokabideak eta jokabidearen balio eta arau etikoak deskribatzen dituen katalogoarekin. Balio horiek dira, esaterako, gardentasuna, legea betetzea, pertsonak eta beren duintasuna errespetatzea, giza eskubideak eta askatasun publikoak errespetatzea, zintzotasuna, fede ona, jokabide-osotasuna eta sen ona.

2. IRISMENA

Arrisku Penalak eta Eroskeria Saihesteko Politika integratu hau ZAINTZENren kide guztiei aplikatzen zaie, erakundearen barruan betetzen duten kargua edo lanpostua, harreman mota eta nazio-mailan duten kokapen geografikoa alde batera utzita.

Bestalde, Politika hura luzatuko zaie hirugarrenekin, negozio-kideekin, erakundearen izenean jardun edo ekintzak egiten dituzten pertsonekin, atzerriko eskumendeko enpresekin eta partaidetza-sozietateekin izaten diren harremanei, eginbide-prozeduretan ezarritakoaren arabera, erakundeari arrisku kritiko edo larrikeria ekar diezaioketen neurrian. Politika hori ezagutu eta beren jarduera profesionalaren esparruan aplikatu beharko dute guztiek.

ZAINTZENren kontrolpean dauden sozietateen edo erakundeen kasuan, Politika hura aplikatuko da Compliance Penalak eta Eroskeria Kudeatzeko Sistema ZAINTZENlerra atxikiz edo harekin bat etorritik.

3. HELBURUAK

Politika honen helburu nagusiak dira:

- ❖ Kode Etikoaren irizpideei jarraitzea. Kode horrek honako gauza hauek jasotzen ditu: enpresa-etikaren printzipioekin eta jarduketa-eremu guztietako gardentasunarekin ZAINZENk duen konpromisoa eta lan egitean ZAINZENren profesional guztiek bete behar dituzten jokamolde etikoak eta arduratsuak nahiz horiek ez betetzearen ondorioak.
- ❖ Kultura etikoaren ezarpen eta garapen efektiboa eta ZAINZENren kide denek legea betetzea, lanpostua eta funtzioak non betetzen dituzten alde batera utzita.
- ❖ Edozer delitu-egintza, legez kanpoko egintza edo Kode Etikoaren balioen eta printzipioen aurka doan egintza ez onartzea eta berariaz debekatzea, eroskeria barne; ZAINZENren balio etikoek barne- eta kanpo-harremanak zuzentzen dituztela bermatzeko xedez. Horretarako, jarduketa eraginkorra egingo da, zerbitzu guztietan bikaintasuna eta kalitate handia betez.
- ❖ Kide anitzeko organo betearazle bat izendatzea delituen prebentziorako, eroskeria barne; hura hornitzea beren zeregina egiteko nahikoa baliabide materialekin eta giza baliabiderekin eta etengabeko prestakuntza sustatzea, kargua betetzean buruzagitza, autonomia eta independentzia ziurtatzeko xedez, gobernu-organoaren mendeko zuzena izanik eta hark sarbide zuzena edukirik.
- ❖ ZAINZENko kideei etengabe komunikatzea, prestatzea, sentsibilizatzea eta kontzientziatzea eta, aldizka, eskatzen duten negozio-kideei eta bestelako interes taldeei ere bai, Compliance Penaleko Kudeaketa Sistema ZAINZENlaren edukiaren, baldintzen eta izaeraren inguruan, gure jarduerak betetzean eraginkortasunik handiena lortzeko eta kultura etikoa eta legea betetzeko kultura garatzeko.
- ❖ Erakundeko kideek informazioa derrigorrez eman behar izatea arrisku penala edo eroskeria ekar dezakeen edozein gertaera edo jokabide irregularri buruz. Ildo beretik, egoera horren berri edo susmoa duen edozein hirugarrenek erakundeari jakinarazi behar dio zuzenean. Horretarako, kanal etiko bat sortu da, Informazioaren Barne Sistemaren barruan ZAINZENTua, dagokion politikarekin, prozedurarekin eta hura behar bezala kudeatzeaz eta izapidetzeaz arduratzen den figurarekin batera, Betekizun Penalerako eta Eroskeriaren Aurkako Kudeaketa Sistema ZAINZENlaren irregulartasunak edo

ez-betetzeak jasotzen direnerako. Halaber, biltzen diren oinarritzko eskubideak errespetatzen direla bermatu da, bereziki salatzailearen edo fede oneko informatzailearen konfidentziasuna, anonimotasuna eta errepresaliarik eza ziurtatzeko.

- ❖ Compliance penala eta eroskeria kudeatzeko sistema garatu eta monitorizatzen duten prozedurak ezartzea, horiek eraginkortasunez kudeatzeko xedez, ezarpen efektiboaren maila, bat ez etortzeak eta ekintza zuzentzaileak ebaluatzeko adierazle egokiak ezarri berrikuspen- eta hobekuntza-prozesu etengabe baten barruan.
- ❖ Diziplinazko neurri egokiak hartzea Compliance Penala eta Eroskeria Kudeatzeko Sistema ZAINZTENlean gerta daitezkeen arriskuen eta ez-betetzeen aurrean, eta legez kanpoko edo delituzko edozer jokabideren aurrean ere bai. Horiek oso arau- hauste larritzat joko dira kontratuaren fede ona urratzeagatik. Horrek guztiak ez die kalterik eragingo gainerako lege- edo kontratu-betekizunei, jokamolde horietatik erator litezkeenei.

4. INDARREAN SARTzea, INDARRALDIA, KOMUNIKAZIOA ETA BERRIKUSPENA

Politika hori indarrean sartuko da dokumentu hau onartu, aldatu edo eguneratzen den egun berean.

Argitaratu eta hedatuko da, ezagutzera emate aldera. Gainera, korporazioaren webean eskuragarri eta kontsultagarri egongo da.

ZAINZTENk ohikoan berrikusiko du edukia, dokumentu-informazioko sisteman ezarritako maiztasunarekin. Ezohikoan, hura egokitzeko edo berehala eguneratzeko legezko, antolamenduko edo beste nolakotasun bateko baldintza garrantzitsuak gertatzen direnean.